

JOSE LUIS
ZUMETA

Aske kolore biziak



USURBIL. 1978.

Olíoa mihisean. 200x200cm



Xabier Gantzarain
@gantzarain

Beste artista batzuen aldean euskaldunarentzat ezaguna da Jose Luis Zumeta Etxeberria (Usurbil, 1939ko apirilaren 19a). GAUR taldeko kidea, gero Ez Dok Amairun ibilia, Mikel Laboaren azalen egilea, hainbat afixa ezagunena, Artzeren xoriak marraztu zituenena... Ezin da ulertu 60ko hamarkadatik honako euskal kulturaren iruditeria Zumetaren lana aintzat hartu gabe. Eta jarraituko duela ematen du: erreparatu bestela ze presentzia hartu duen bere *Gernika* koadroak azkenaldian.

Marrazten ona zela eta Donostiako Valverde inprentan hasi zen lanean hamalau urterekin. Han ikusi zituen lehen

aldiz, erreprodukzioei esker, bizitza aldatuko zioten Cezánne, Modigliani, Picasso, Klee... Margotzen hasi zen. Hamabost urterekin pintore izan nahi zuen. Donostiako Arte eta Lanbide Eskolan ibili zen. Parisera joan zen 1959an, Rafael Ruiz Balerdi ezagutu zuen han.

1967an "Euskal Pinturaren Sari Handia" lehiaketa irabazi zuen, *Pablo Picassoren Gernikari omenaldia* lanarekin. Lan hori desagertuta dago egun. Desagertuta dago, halaber, 1974an Pasaian jarri zuen zeramikazko murala, eskerrak zutik dirauen 1973an Usurbilen jarritakoak.

Bere ibilbide luze eta oparoan era askotako lanak egin ditu Jose Luis Zu-

metak, baina abstraktuak gehienez, horregatik da hain harrigarria 70eko hamarkada bukaerako aldi hau, zeinenez artistak figurazio basati batekin erretratatzeko duen bere ingurua, bere mundua.

Bere jaioterriaren izena daraman koadro honetan, esaterako. Kritika soziala egin nahi zuela esan izan da, baina ez du ematen; koadro honetako figurak egon ziren garai batean bere jaiotetxean zegoen Zumeta jatetxeko sarrera-atearen alboetan pintatuta.

Hori bai, okela zati horrek izua eragiten du, jendeen begitarte ilunek bezainbat. ■